

KOKEIN "Lan berria rockeroagoa da"

musika taldea

KOKEIN 1999AN SORTU ZEN EIBARREN, IZENARI BUELTA GEHIEGIRIK EMAN GABE. HASIERAN, LAUKOTE GISA HASI ZIREN BAINA GAUR EGUN BOST KIDEK OSATZEN DUTE TALDEA. ZALOA, TXITXES, LETE, JATSU ETA ERMUKO PAM TALDEKO IKER SAINZEK. IAZKO DURANGOKO AZOKARAKO KALERATU ZUTEN LEHENENGO KD-A, "KOKEIN" IZENEOA ETA OSO HARRERA ONA IZAN ZUEN. DAGOENENKO BIGARREN LANA PRESTATZEN ARI DIRA ETA EMAITZA UDAZKENERAKO IZANGO DA KALEAN. UZTAILAREN 17AN, GATIBU TALDEAREKIN BATERA ERMUAN IZAN ZIREN ETA TARTETXO BAT ESKAINI ZIGUTEN EUREN PROEIKTU BERRIEI BURUZ HITZ EGITEKO.



- 1999an taldea sortu zene-tik, taldekideen artean hain-bat aldaketa izan dira ezta?

Hasieran, laukotea ginen. Zaloe, Storbais taldeko Fory, Txitxes eta Jatsuk osatzen genuen taldea. Gero, Foryren ordezkari Lete sartu zen. Beranduago, bigarren gitarra modura, Aintzira Gorosabel egon zen eta Aintzirak utzi zuenean Iker sartu zen 2003ko irailean. Gaur egun beraz, Zaloe (ahotsa), Jatsu (gitarra), Txitxes (baxua), Iker (gitarra) eta Lete (bateria) gara taldekideak.

-Zuetariko gehienak beste

talde batzuetan ibilitakoak zarete. Nola elkartu zineten Kokein sortzeko?

Bai. Jatsu Lutherren zegoen, Zaloe Kukkan, Txitxes Ehun Kilon aritu zen, Lete Kafhan eta Iker PAM-en. Gaur egun, PAM izan ezik beste taldeak desaginda daude. Talde gehienek Legarrek lokaletan entseatzen genuen. Kantautore bat zegoen eta jendea behar zuen bere taldea sortzeko, orduan gutariko batzuei deitu zigun eta harrez geroztik, Txitxes, Zaloe eta Jatsu elkartzen hasi ginen, Foryri bateria jotzeko esan

genion eta horrela aldaketak tartean, gaur egun arte.

-Zuen ibilbideari dagokionez, lehenengo KD-a, "Kokein" 6 kantaz eta bideo-klip batez osatutakoa, iazko Durangoko azokan kaleratu zenuten.

Bai. Aurretik guk entzuteko, bi maketa egin genituen baina ez genituen salmentan jarri eta iazko azaroan gure lehenengo mini KD-a kalera-tu genuen.


-Lehenengo lan horrek kritika onak izan ditu ezta?

Bai ezin gara kexatu. Egia esan, kritika gutxi egin diz-

kiote lanari baina harrera ona izan da ikusentzuleen aldetik. Gainera, kontzertu asko eman ditugu eta horrek zalantzarik gabe asko laguntzen du, jendeak gure lana entzun eta eza-gutu dezan. Ezezagunak izanda, jendeak kasu egin dio gure lehenengo lanari.

- Iturri ezberdinetatik edaten duen taldea zaretela esaten da, alegia, ez duzuela eragin argirik, denetarik entzuten duzuela, nahiko musika irekia dela zuena... Nola definituko zenukete zuek zuen estiloa?

Rock-a. Lehengo lana, tal-



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

dea berez den baino “lighta-
goa” geratu zela esan daiteke.
Orain, taldea rockeroago da-
go. Bestalde, ahotsak berak
ematen dio taldeari nortasuna,
Zaloaren pisua hor dago eta
hori mantentzeak lotura dau-
ka aurreko KD-arekin eta es-
tilorekin.

**-Zerbait ezberdina eskain-
tzen saiatzen zarete?**

Saiatu ez gara saiatu ezer
ezberdina egiten. Egia da, el-
karrizketetan esan izan digu-
tela desberdina zela baina guk
entzuten genuena eta aterat-
zen zitzaiguna egin dugu eta
egiten dugu eta hori da gure
lanen emaitza. Azken finean,
gu geu izan gara eta hortik au-
rrera, norbaitek horrela ikus-
ten badu...

**-Bigarren lana prestatzen ari
zarete dagoeneko?**

Bai, uztailan grabatuko
dugu, irailean nahastu eta
abuztuan oporrak hartuko di-
tugu. 10 kanta inguru izango

ditu lanak. Rafa Rueda (PiLT
taldeko abeslaria) arituko da
ekoizpen lanetan eta Gaztelu-
pekin atera behar dugu dis-
koa. Aurreko diskoan ere, Ra-
fa Ruedak izan zuen ekoizpen
artistikoaren ardura. Lehe-
nengoaren antzerakoa izango
da prozesua, gustatu zitzaig-
un, gustora aritu ginen jen-
dearekin eta errepikatu egin-
go dugu. Bilbon grabatuko
dugu PiLT-k daukan estudion-
an.

**- Bigarren lan honek badau-
ka lehenengoarekin antzen-
kotasunik?**

Bai, azken finean gu gara.
Aldaketarik ere badago. Iker,
taldekide berria da eta uste
dugu hori ere igartzen dela.
Bigarren lan hau rockeroagoa
dela esan daiteke. Ez genion
erronka moduan gure buruari
jarri bigarren diskoa atera be-
har genuela baina abestiak
sortuz eta ateraz joan dira.

- Abuztuan oporrak hartuko

**dituzuela esan duzue, nola
daukazue uda kontzertuei
dagokioenez?**

Aurten egia esan, kontzertu
gutxi daukagu udarako. Guk
erabaki dugu oporrak hartzea,
iaz ez genuelako opor askorik
izan eta batez ere, disko berria
prestatzeko. Hori da guk nahi
duguna, iaz ere, lehenengo
diskoa atera genuenean ahalik
eta kontzertu gehien ematea
nahi genuen gure lana jendea-
ri ezagutarazteko eta asko
gustora aritu gara baina au-
rten uztailan grabatu eta
abuztuan lasaiago egoteko
aukera daukagunez, aprobe-
txatu egingo dugu. Gero, bi-
garren diskoa kaleratzen du-
gunean berriz ere kontzertuak
eskainiko ditugu.

**-Lehenengo KD-an bideo-
klip bat ere bazegoen, orain-
goan?**

Oraindik erabaki gabe da-
go, eztabaidatzen ari baikara

baina egia esan gustatuko li-
tzaiguke.

**-Euskaraz abesten duzue,
zergatik aukera hori?**

Hasieran ingelesez abesten
genuen baina ez zen gure au-
kera normala, guk entzuten
genuen musika gehiena inge-
lesez zelako, ez zegoen beste
arrazoi nagusirik ingelesez
abesteko. Gerora, denbora pa-
sa ahala eta taldearekin au-
rrera egitea serioago planteatu
genuenean, berehala ikusi
genuen gure artean askoz na-
turalagoa eta normalagoa zela
euskaraz abatea.

**-Zer moduz erantzun du jen-
deak Ermuko kontzertuan?**

Momentu honetan nahiko
lasai gabilta, ez daukagu
kontzertu gehiegirik eta go-
goa geneukan Ermuan jotze-
ko. Gustora aritu gara eta jen-
dearen erantzuna ere oso ona
izan da.

Testua: Alazne Aiestaran
Argazkiak: Estilxu Azpiazu



Pub SCORPIO



Zubiakurre, 21
ERMUA

ZUBIAURRE

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

Zubiakurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61 Faxa. 943 17 42 17
48260 ERMUA